

ataria



Letrekin jolasteak saria dakar

Gizartea

Zizurkilgo azken
lan istripua
prekaritatearekin lotu du
gehiengo sindikalak

Komunikabideak

Ander Malbadi eta Eneritz
Aulestiaren eskutik,
bueltan da 'Hauspo Artean'
trikiti saio berritua

2018-10-12
939. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus

AZKEN ETXEBIZITZAK



1ºA : 156.000 € + BEZ
1ºB: 159.000 € + BEZ

AMEZKETA - San Bartolome, 35

2 eta 3 gelako etxebizitza, garaje itxia, trastelekua.



2 gela: 185.000 €tik
3 gela: 200.000 €tik

ANOETA - Iturtxulo kalea,1

235.000 € + BEZ aurrea



VILLABONA - Maiatzaren lehena plaza

210.000 € + BEZ aurrea



IRURA - Kale txiki

VPO etxebizitza: 3 gela eta gareje itxia.



155.070,47 € + BEZ aurrea

ORDIZIA - Filipinak kalea 34-36

275.000 € + BEZ aurrea



ALEGIA - Beistin auzoa

155.000 € + BEZ



IRURA - Laskibar auzoa,15

Hasi eta hasi

Udazkena hasi eta harekin hasi da dena. Hasi dira eskolaz kanpoko ikastaroak eta haiekin batera batetik bestera iristeko guraso askok egin behar izaten dituzten lasterketak. Hasi dira hizkuntza eskoletako ikastaroak eta han abiatu dira hizkuntza

bat ikasteak dakartzan zailtasun eta katriamilak. Kiroldegietan ere makina bat hasiberri daude, giharrak gogortzeko eta osasun-egoera hobetzeko ahaleginetan. Eta horrela, dena hasi, hasi eta hasi.

Askoren asmoak sasoi honetan erosi eta estutxean gordetako boligrafoen tapak urratzen hasterako agortzen dira edota kirola egiteko erositako arropa berriak gorputzera egiterako. Baina zer demontre udazken-negua horretarako garaia ere bada! Nonbait irakurria daukat negua etxerako eta atsedean hartzeko garaia dela batez ere, naturak ere garai honetan barrurako joera duela eta horregatik udaberriko lehen eguzki izpiak iritertzen direnean indartsu eta kementsu agertzeko gaitasuna

Pertsonok, ordea, zalapartan eman nahi dugu negua eta hortik, agian, udaberrian pertsona hainbatek erakusten duten ahuldadea eta ezina



MAIDER EIZMENDI
KAZETARIA

duela, bizi eta koloretsu. Pertsonok, ordea, zalapartan eman nahi dugu negua eta hortik, agian, udaberrian pertsona hainbatek erakusten duten ahuldadea eta ezina; ezin berpiztu itzaltzeko ahaleginik egin ez duen hori.

Zaila da ordea, «hastearen» zurrumbilo horretatik ihes egitea: hizkuntza bat erraz eta azkar ikastea posible dela sinestarazten digute iragarkiek, kirola gogor eta modu diziplinatu egiten ez duen hori zeharo nagia dela esan, «probetxuzko» ezer ikasi nahi ez duenak, gutxienez josteko edota sukaldean hobeto egiteko ahalegina egin dezakeela gogora ekarri; batean edo bestean, baino zerbaitetan hasi bederen.

Nik ere izan dut «izen-ematearen» sindrome hori; hasi naiz honetan eta hartan, eta bukatu dut hau eta besteak, baina ezin izan dut hirugarren harekin, asmoa, gogoa eta indarra agortu zaizkidalako bidean.

Hasteko eta amaitzeko datarik ez duten eta presiorik eragiten ez duten horiek egin nahi dituela irakurtzen nion orain gutxi adinean aurrera egindako pertsona bati. Nahikoa estutu duela bere burua onartu eta lasaitasunean irakaspenak jasotzeak eragiten dion plazeraz mintzo zen. Egutero hasten da hura, baina egutero amaitzeko. Inbidia eragiten zuten bere hitzek eta ikasteko eta egiteko moduek. Lastima, ileak zurituta eta azalak zimurtuta izan beharra hori ikasten hasteko.

03

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txojarre



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albizketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
J.M.-I.L.



ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE eta Hiru sindikatuek atzo egindako deialdiarekin bat egin zuten hainbat herritarrek. J.M.

04

Lan istripua salatu dute

Gehiengo sindikalak atzo elkarretaratzea egin zuen Zizurkilen eta azken heriotza prekaritatearekin lotu zuen

Jon Miranda

Larunbatean Zizurkil eta Asteasu artean, uza makina batek harri-patu ostean izandako zauri larrien ondorioz igandean zendu zen 46 urteko langilearen heriotza salatu zuten atzo ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE eta Hiru sindikatuek. «Dolumina eta babesia» adierazi zieten elkarretaratzean bildutakoek hildako langilearen familia, lagun eta gertukoei eta heriotza honen arrazoiak ikertzea eskatu zuten.

Sindikatuen ustez, «lan munduaren prekarizazioaren ondorio da bizi dugun etengabeko sarraskia». Egoera hau ekiditeko lan baldintza txarrak aldatu behar direla esan dute sindikatuek, «eta interes ekonomikoen gainetik langileen segurtasuna eta bizitza bermatu». Gaiak daukan gordintasuna azaleratzeko Hego Euskal Herriko go-

bernuek interesik ez dutela esan dute sindikatuek, «ez dute gaia agenda politikoan kokatzen eta langileari ez zaio bermatzen lan osasunerako eskubidea».

Gehiengo sindikalak salatu duenez, lan istripuen kopurua handitzen ari da urtez urte eta 2018a hasi zenetik Euskal Herrian 57 langile hil dira, horietatik hiru nekazaritza sektorean. «Nekazaritza arrisku handiko sektorea da: jardunaldi luzeak, irregularrak, zarata eta estres termikoa nagusi izan ohi da, eta horrekin batera, erabiltzen diren makinak oso arriskutsuak dira». Oinarritzko segurtasun neurri batzuekin, istripuak ekidin daitezkeela uste dute sindikatuek, eta beraz, langileen eskubide, segurtasun eta osasunaren alde, borrokan jarraitzeko deia luzatu dute, «langileria eta gizarte osoa mar-txan jarritz».

Batzar Nagusien adierazpena

Gipuzkoako Batzar Nagusiek erakunde adierazpena argitaratu dute Zizurkilgo azkeneko heriotza salatzeko. Lan

istripuak gure sistema ekonomiko-sozialaren «egiturazko arazo» bilakatu direla uste dute Batzar Nagusiek eta lan arriskuen aurkako defentsarik onena prebentzioa eta prestakuntza direla, «horien bidez lortzen baitute langileek ongizatea, ezagutza eta segurtasuna». Nagusiei eta langileei, segurtasun eta osasunari buruzko araudia «zorrotz bete dezatela» eskatu diete, «laneko arriskuei aurea hartzeko».

Gipuzkoako Batzar Nagusiek erakunde guztiei berriz ere eskatu diete, «lan arriskuen prebentzioan jardunbide egokiei buruzko proiektuetan lagun dezatela eta laneko segurtasunaren eta osasunaren aurkako delituak jazarri eta ikuskapen funtzioak gehitu eta hobetu ditzatela, administrazioarekin eta erakunde sindikal zein patronalarekin koordinatuta». Erakunde adierazpenean esandakoaren arabera, «langileak dira gure herrialdearen garapen sozial eta ekonomikoaren mui-na», eta horregatik, «lan mota guztietan lehentasuna izan behar du lan segurtasunak».

Birziklatze tasa %80an kokatzen du udalak

Anoeta. Tolosaldeko Mankomunitateak emandako datuen arabera, birziklatze tasa Anoetan %74aren bueltakoa da. Udalak aipatu duenez, datu horietan ez da konpostaje bidez kudeatzen den organikoa kontuan hartzen. Beraz, hondakin hori ere aintzat hartuta, birziklatze tasa %80an kokatzen du udalak. Edozein modutara, datuak «oso onak» direla esan dute udal ordezkariak, «eta beti hobetzeko tarteak dauden arren, herritarrak oso harrago egoteko moduko zenbakiak direla aitortu behar da».

'Zatoz jolastera' ekimenaren bigarren aldia

Amasa-Villabona. Malkar aisialdi taldeak Villabonako Udalaren laguntzaz euskararen erabilera sustatzeko asmotan, LH1 eta LH6 bitarteko haurrentzat jolasak antolatu dituzte igande goizetarako. Jolasak, Erreboteko plazan edo Berdura plazan izango dira eguraldiaren arabera, 11:30etik 13:30ak bitarte.

Finalistaren Eguna egingo dute urriaren 21ean

Amasa-Villabona. Gipuzkoako ikastetxeetako neska-mutil guztiek har dezakete parte. Bi ibilbide prestatu dituzte, bat 13 kilometrokoa, eta bestea motzagoa, 9 kilometrokoa. Errebote plazatik abiatuko da ibilaldia, 09:00etan. Izan emateko azkeneko eguna, urriaren 19a da eta bi aukera daude, *ibilaldia@aizkardi.com* helbidera idatzita, edo bestela, 649 71 71 82 telefono zenbakira deituta.



Lege Zaharren enparantza berritzeko lanak astelehenean hasi ziren. J.M.

Plaza oinezkoentzat egokitzen hasi dira

Asteasuko plazako lanek iraungo duten hilabeteetan aldaketak izango dira herriguneko egunerokoan

J.M.

Astelehenean hasi ziren Asteasuko Lege Zaharren enparantza berritzeko lanak. Frontoi atzeko aparkalekua obraren beharretarako gordeko da. Beraz, Lamitegiko eta igerilekuko aparkalekuak erabili beharko dira lanek irauten duten bitartean.

Kale Nagusirako sarrera bermatuta

egongo da une oro, eta obren fasearen arabera egokituko da. Erreka-bailararik plazara irteerak izango dira: Ibargain, Betani eta Kale Nagusia. Ibarazpi pasealekuko zubiaren norantza aldatu egingo da obrek irauten duten bitartean. Hala, Lamitegiko aparkalekura herri barrutik sartu ahal izango da. Kamioi gidariek aurrez hitzartu beharko dute plazako sarrera obrako arduradunekin.

Asteasuko Udalak jakinarazi duenez, obra arduradun bat egongo da lanek irauten duten bitartean, kontsultak egiteko eta zalantzak argitzeko.

TX **aridunak**

Atarikideentzat **liburu eta DVD bat** daukagu

'La fuerza de la fragilidad'

disco, liburu eta DVDa zozketatzen dugu

• Marijo Murua (Tolosa)

ATARIA jarriko da harremanetan

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Elena Villanueva, Aloña Agirre eta Peio Eraso Atzegiko kideekin batera. R. CALVO

Boluntario izateko txanda desgaitasuna dutenentzat

Atzegik 'Gure txanda da' sentsibilizazio kanpaina abiarazi du, desgaitasuna dutenak boluntario izateko asmoz

Rebeka Calvo

Atzegi elkarteak sentsibilizazio kanpaina berria abiarazi du. *Gure txanda da* lelopean adimen desgaitasuna duten pertsonen ere boluntario izan nahi dutela adierazi nahi dute.

Adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko Atzegi elkarteak boluntarioria aukera berriak lortu nahi ditu, eta horretarako *Gure txanda da* kanpaina prestatu dute. Atzegiko eskualdeko arduradunak, Aloña Agirrek, azaldu duenez kanpainak helburu bikoitza du: «Alde batetik, adimen desgaitasuna duten pertsonen boluntario izateko duten gaitasuna ikusgai egin nahi dugu eta, bestetik, boluntario izateko aukera berriak aurkitu nahi ditugu».

Asteazkeneko Tolosako Zerkausi-ko agerraldian azaldu zuten, geroz eta pertsona gehiago hurbiltzen zaie

boluntario izateko nahia azalduz. «Badira urte batzuk hainbat erakunderekin elkarlanean ari garela, Elikagaien Bankua, Lilatona, Ehunmilak edo hainbat Urte Zaharreko lasterketa, esaterako. Kolaborazio horiek eskertu eta sendotzeaz gain, boluntario izateko esparruak zabaldu nahi ditugu, eta honela pertsona gehiagori aukera eskaini», esan du elkartearen Peio Erasok.

Iazko kanpainan Atzegein boluntario izateko deia egin zuten, eta aurtengoan, «boluntarioria buelta bat emanez» adimen desgaitasuna duten pertsonen boluntario izateko duten gaitasuna erakutsi nahi dute, eta bide batez «jasotako laguntza bueltatu».

Izan ere, elkartearen boluntarioria inklusiboan sinesten dutela esan du Agirrek. «Zailtasunak izan arren, desgaitasuna duten pertsonen jardueraren askotan kolaboratu dezakete. Baliagarri sentitzeko eta besteei laguntzeko grianak ilusioa eta ahalegin handia jartzea eramaten ditu. Halaber, gehitu nahiko genuke boluntarioria gizartearen parte hartzearen eta normalizazio-

aren adierazle ere badela, zergatik ez dira boluntario izango?». «Gure gizarteari ekarpen baliotsua egin diezaiokete», gehitu du.

Era berean, erakundeei deia egin nahi izan die Atzegik: «Orain arte izan ditugun esperientziak oso positiboak izan dira bi aldeentzat. Atzegein prest gaude erakundeen beharrak aztertzeko, jarraipena egiteko eta sor daitezkeen boluntario lanetan laguntzeko».

Kanpainaren barruan bi esperientzia erakusten dituzten kartelak, informazio eskuorriak eta adimen desgaitasuna duten pertsonentzako boluntario izateko suposatzen duena erakusten duen bideoa ateratu zuten. Horretaz gain, www.atzegi.eus/guretxandada mikrogunea sortu dute esperientziak partekatzeko.

169

FAMILIA

Tolosaldeko 169 familia dira Atzegiko bazkide, 176 bazkide kolaboratzaile dituzte elkarteak eta 821 Atzegizale gutzitza.



ATERPEKO LANAK MARTXAN, ELBARRENA AUZOAN

Joxe Arregi plazako estalpea egiteko lanak hasi dira eta bi hilabetetan egitea aurreikusi dute. 178.000 euroko kostua izango du aterpeak, eta 2018ko aurrekontuetako inbertsiorik nagusiena izango da, Zizurkilgo Udalarentzat. Obrak amaituta, Elbarrenako erdiguneak estalpea izango du, auzotarrek egindako eskaria betez. JON MIRANDA

IKT astea hamargarrenez, hilaren 22tik 26ra bitarte

Goizez Lehiberri zentroan izango dira saioak, eta Oriaburu eraikinean eskainiko dituzte eguerdikoak eta arratsaldekoak

Erredakzioa

Informazio eta komunikazio teknologien astea hamargarren urtez helduko da Tolosara, urriaren 22an. Lehiberri zentroak iragarri du, jada, egitaraua, eta hiru ordutegi prestatu dituzte, enpresek doako ikastarook jaso ditzaten; zabalik dira izen-emate guztiak.

Batetik, goizeko saioak izango dira, hilaren 22tik 26ra, Lehiberri zentroan bertan. 09:30ean hasi eta 13:00etan amaituko dira, eta Apatta industrialdera bertaratzeak autobusa ere eskuragarri izango da. Horrela, zibersegurtasuna, enpresetako datuen erabilera, enpresa industrialetan plan digitalak txertatzea eta Datuen Babeserako Lege berriaren ezustekoak saihestea

izango dituzte hizpide saio horietan. Bazkalorduan, merkataritzari eta ostalaritzari begirako ikastaroa eskainiko du IKT asteak, 14:15etik 16:15era, eta Oriaburu eraikinean izango da: urriaren 22tik 25era, komertzioetarako marketin digitala jorratuko dute parte hartzaileekin.

Azkenik, Oriaburu eraikinean bertan, arratsaldez ere ikastaro eskaintza izango da, 18:00etatik 20:00etara. Kasu horretan, Wifi gunetako segurtasunaz, dronez eta tresna teknologiko berriez, internet bidezko salmentaz eta internet bidez lana bilatzeko moduez ariko dira.

Ikastaro guztietako izen-emateak zabalik daude jada, eta horretarako nahiz informazio xeheagoa eskuratzeke, honako kanalak jarri dituzte eskuragarri, antolatzaileek: 943 65 45 01 telefono zenbakira, www.lehiberri.eus ataria, www.euskadinnova.net ataria eta lehiberri@tolosaldea.eus helbide elektronikoa.

Herri bideen eta baso pisten erabilera arautu nahi du udalak

Erredakzioa Ibarra

Ibarrako Udalak herri bideen eta baso pisten erabilpena arautzen duen ordenantza onartu nahi du. Ordenantzarekin, landa bideek eta baso pistek dituzten izaera eta ezaugarri bereziak kontuan hartuta, ibilgailuekin erabili ahal izateko arau orokorrak ezarriko dira egoera berean geratuko direla bermatzeko.

Udalak azaldu duenez, «arau hori onestea beharrezkoa da landa bideak eta baso pistak kaltetuak izatea ekiditeko». Izan ere, arau horren helburua udal titulartasuneko baso pisten eta herri bideen «erabilera berezia» arautzea da.

Hori horrela, gai honen inguruan herritarren parte hartzea ahalbidetzeko, iritzi eta proposamenak egiteko hamabost egunetako epea zabaldu du udalak. Epea urriaren 19ra artekoa izango da. Iritzi eta proposamenak egiteko ingurugiroa@ibarra.eus helbidera idatziz edo Ibarako udaletxeko harreraren idatziak aurkeztuz egin daiteke.

Lehen sorospenei buruzko hitzaldia

Erredakzioa Alegia

Lehen sorospenen inguruko hitzaldi bat eskainiko da kultur etxean, urriaren 16an, asteartean. 18:00etan hasiko da eta Alegiako Osasun Etxeko kideek eskainiko dute hitzaldia. Lehen sorospenen inguruko oinarritzko ezagutzak ikasteko aukera izango da hitzaldi honetan eta herritar guztientzat irekia izango da. Hitzaldia Alegiako Osasun Etxeak eta udalak elkarlanean antolatu dute.

Asteartean ekingo diote irakurketa klubari, berriro

Ikasturtea bitan banatu dute; urtarrila bitarte lau liburu aztertuko dituzte, guztiak gaztelaniaz

Erredakzioa

Irakurleek hala eskatuta, bi zatitan banatu dute, aurtan, Aranburu jau-regiko irakurketa kluba: lehen lau liburuak gaztelaraz idatzitakoak izango dira, eta bigarren erdia euskal literaturari eskainiko diote.

Datorren asteartean, hilaren 16an, Aranburu jauregiko irakurketa kluba hasiko da, Tolosan. Saio guztiak asteartetan izango dira, 18:30etik aurrera, eta ez da beharrezkoa izango aurrez izena ematea. Parte hartzeko baldintza bakarra 16 urtetik gorakoa izatea da, eta proposaturiko liburuak irakurrita eramatea, noski; guztiak mailegatu ahal izango dira liburutegian bertan.

Aurtan, estreinakoz, bi zatitan banatu dute ikasturtea, eta lehen erdian gaztelarazko lau liburu izango dituzte aztergai; lehen, tartekatut egiten zituzten hizkuntzak. Urtarriletik aurrera, berriz, euskal literaturak hartuko du udal liburutegiko irakurketa klubaren erdigunea; urte berriarekin iragarriko dute egitaraua.

Astearteko saioan Pedro Mairalen *La Uruguaya* izango dute hizpide, eta Monica Leivak gidatuko ditu gaztelarazko saio guztiak. Gainerako hiru hitzorduetarako, honako obrak proposatu dituzte:

HITZORDUAK

AZAROAK 13

Joe Bageant-en *Cronicas de la America profunda*.

ABENDUAK 11

Aki Shimataki-ren *Hozuki, la libreria de Mitsuko*.

URTARRILAK 22

Angelika Schrobendorff-en *Tu no eres como otras madres*.



Material berria San Esteban auzoko erredakzioan eskuratu daiteke. I. LUQUE

Hemen unibertso oso bat kabitzen da

‘Tolosaldeko Ataria’-k material berria salgai jarri du: koadernoak boligrafoa eta katilua. Atarikideek prezio berezia dute.

Erredakzioa

TOLOSALDEKO ATARIA-k bosgarren urteurrenaren ospakizunarekin bat material berria salgai jarri du. *Hemen unibertso oso bat kabitzen da* urteurrenaren leloarekin bat eginda aurkeztu da tokiko komunikabidearen material berria.

Katilua, *Busti mingaina* proposatzen duena, zortzi euroko prezioan salgai dago Atarikideentzat eta hamar eurotan gainontzekoentzat.

Boligrafoak eta *Hasiko gara idazten?* galdetzen duen koadernoak osatzen duen sorta lau eurotan eskuratu dezakete Atarikideek eta sei eurotan gainontzekoek.

Azkenik, hiru produktuak batera erosi nahi dituenak aukera izango du promozio berezian. Boligrafoa, koadernoak eta katilua hamar eurotan izango dute Atarikideek eta hamalau eurotan gainontzekoek.

Produktuak dagoeneko eskuragai

daude TOLOSALDEKO ATARIA-k San Esteban auzoan kokatuta duen erredakzioan, 09:00etatik 18:00etara. Informazio gehiago behar izanez gero ataria@ataria.eus-era idatzi daiteke edo 943 65 56 95 telefono zenbakira deitu.





CRISTINA ALMADAREN 'BEGIRADAK' AZALERA

Cristina Almadaren *Begiradak* izango da 2019ko Tolosako egutegiaren azala, 418 boto jasota. Bere lanak Tolosanklisk lehiaketako sari nagusia poltsikoratu du; egutegiaren azala izatea eta 600 euroko ordainsaria jasotzea dagokio. 256 argazki aurkeztu dira aurtengo leloari erantzuna eman nahian: *Tolosa Berdea*. Azala Almadak beteko badu ere, gainontzeko hilabeteen zerrenda Iñigo Royo eta Ura Iturralde argazkilariek zerrendatu behar izan dute: Blanca Vidal, Ane Elizegi, Cristina Almada, Iñaki Ugarte-mendia, Raul Agerre, Naiara Lasarte, Diana Garcia, Joseba Garmendia eta Idoia Zabaleta. Egile bakoitzak beraz, egutegian argitaratuko du bere lana eta 200 euroko diru saria jasoko du. **TOLOSAKO UDALA**

Pentsiodunek elkarretaratzea deitu dute

Tolosa. Tolosaldeko Jubilatatu eta Pentsiodunek, uda aurretik egin bezala, hamabostean behin, elkarretaratzea egingo dute pentsiodunen aldarrikapenak plazaratzen jarraitzeko, erantzuna jaso asmoz. Tolosako udaletxe aurrean izango da oraingotan ere, astelehenean, urriaren 15ean, 12:00etan.

Altsasuko Nafarroa Oinezera autobusa, Tolosaldetik

Tolosalde. Urriaren 21an ospatuko da Nafarroa Oinez Altsasun. Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosalde-tik autobusak antolatu ditu bertara joateko eta izen ematea irekita dago urriaren 18a, osteguna, bitarte. Autobusean joateak 10 euroko prezioa du (Galtzaundikide edota atarikide direnentzat 8 euro).

Eskalada ikastaroak haur eta helduentzat, Zumardiarekin

Arrokako eta Aristetako eskalada ikastaroak antolatu ditu Zumardiak, Antton Zabala Arabaolaza teknikariarekin

Erredakzioa

Zumardiak antolatu eta Antton Zabala Arabaolaza eskalada teknikari eta gidariak eskainiko ditu haur eta helduei zuzendutako eskalada ikastaroak. Izena emateko aukera zabalik dago dagoeneko: 688 64 42 67 telefono zenbakira deituta, edota zantton@hotmail.com helbide elektronikora idatzita.

Arrokako eskalada ikastaroa hamar urtetik gorako haurrentzat nahiz helduentzat zuzenduta dago. Eskaladan formakuntza zabaltzeko edota segurtasunez eta autonomiaz aritzeko helburua du ikastaroak.

Aristetako eskalada ikastaroa, berriz, 18 urtetik gorakoentzat soilik izango da. Kresta eta aristetatik erraztasunez eta azkartasunez mugitzen ikastea du helburu. Igoerak azkartasun, arintasun eta segurtasun faktoreekin egiten ikasteko balioko du, besteak beste.

Prezioak aldagaiak dira ikastaroak irauten duen egunen arabera. Adibidez, egun bakarrekoak 180 euroko prezioa izango du, eta bi egunekoak 320 eurokoa.

ataria jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €

bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Tolosa CF-ko infantilak eta seniorrak Eibarko Ipurua kiroldegian, iragan larunbatean. ATARIA

Tolosa CF Gimnastika Euskadiko txapeldun

Infantil eta senior taldeek lehen postuan amaitu dute Euskadiko Txapelketa, Eibarko Ipurua kiroldegian

Tolosa CF Gimnastika

Pasa den larunbatean, Eibarko Ipurua kiroldegian Tolosa CF-ko gimnasta federatuak Euskadiko Txapelketa parte hartu zuten. Infantil eta senior mailan jardun zuten, eta txapelketa gogor baten ostean bi taldeak txapeldun geratu ziren.

Txapelketa honen emaitzak garrantzi berezia zuen, izan ere, lehen bi sailkatuak azaroan Murtzian ospatuko den taldekako kopan parte hartzeko txartela lortzen zuten. Eta horrekin batera, Euskalgym-eko galan izateko aukera.

Infantiletan, Mara, Onintza, Ismene, Aitane, Carla eta Anek sailkapena errazagoa zuten, baina, seniorretan Anne, Saroi, Joane, Irati Xiaoyan eta Iratxe bost taldeen aurka lehiatu ziren. Azken hauek, zonaldeko maila altuena dagoen kategorian parte hartzen dute.

Beste bi taldekako kopa ere ospatu ziren, bata Guadalajaran eta bestea Zaragozan. Infantilak Zaragozan estreinatu ziren federatu mailan eta laugarren sailkatu ziren. Seniorrak, zortez, hiru kopatan parte hartuko duen talde bakarra izango da, eta gainera, Zaragozatik zilarrezko domina lepoan ekarri zuten.

Hortaz, datorren hilaren 11n Murtzian izango dira beren ariketak aurkeztuz eta beren lanaz gozatuz. Aupa neskak, denboraldi hasiera bikaina!

Erik Jaka berriro ere lesionatu egin da

Julen Retegik hartuko du lau eta erdikoan lizartzarraren lekua, ligaxkan

Erredakzioa

Erik Jakak berriro ere min hartu du. Uda guztia lesioagatik geldirik egon ondoren, lau eta erdiko txapelketa itzuli zen kantxetara. Asteartean, ordea, entrenatzen ari zela berriro lesionatu zen. Medikua azterketak giharretan lehen gradu-ko lesioa duela erakutsi zuen, eta ondorioz, Jakak gutxienez bi astez egon beharko du geldirik.

Aspe enpresak jakitera eman zuenez, lau eta erdiko txapelketa Julen Retegik hartuko du Erik Jakaren lekua, final-laurdenetako ligaxkan.

Lesioarekin dabilen beste eskualdeko pilotaria Jokin Altuna da. Astelehenean Olaizola II.aren aurka jokatzekoa da amezketarra, Tolosako Beotibarren. Gaur erabakiko du partida jokatzeko moduan den edo ez.

Promozio Mailan, Jon Ander Peñak Bakaikoaren aurka jokatu du. Partida hori Legution jokatu da gaur, 17:30ean hasiko den pilota jaialdiaren barruan.

BILLABONA FUTBOL KIROL ELKARTEA
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA

Larunbata, 13 • 11:15
 Infantil txiki maila
BILLABONA FKE ANAITASUNA C.D.

Larunbata, 13 • 17:30
 Preferente maila
BILLABONA FKE TOLOSA C.F.

ZUZENEAN

ALTUNA III Vs OLAIZOLA II

Urriak 15, astelehena,
zuzeneko irratsaioa
Tolosako Beotibar
pilotalekutik.
(Jokatuko balitz)

Lau t'erdiko Eusko Label Txapelketa

107.6 fm
www.ataria.eus

TALDE NAGUSIAK

LAUBURU IBARRA

Alzira

Areto futbola. Bigarren B Maila.
5. jardunaldia. Ibarra, larunbatean, 18:00etan.

Santurtzi

LASKORAINIKASTOLA

Areto futbola. Bigarren B Maila.
5. jardunaldia. Larunbatean, 18:15ean, Santurtzin.

Universidad de Navarra

TOLOBOLEI BIDE BIDE

Boleibola. Neskak. Bigarren Maila.
2. jardunaldia. Igandean, 12:00etan, Iruñean.

TOLOSA CF

Hernani

Futbola. Neskak. Euskal Liga. 6. jardunaldia. Larunbatean, 15:30ean, Usabalen.

Real Union

TOLOSA CF

Futbola. Mutilak. Erregional Ohorezko Maila. 6. jardunaldia. Igandean, 17:15ean, Irunen.

BILLABONA KE

TOLOSA CF 'B'

Futbola. Mutilak. Erregional Preferentea. 5. jardunaldia. Larunbatean, 17:30ean, Villabonako Arratzainen.

Zarautz

TOLOSA CF 'B'

Futbola. Neskak. Ohorezko Erregional Maila. 4. jardunaldia. Igandean, 12:30ean, Zarautzen.

Aloña Mendi

INTXURRE KKE

Futbola. Neskak. Gorengo Maila. 4. jardunaldia. Larunbatean, 18:00etan, Oñatin.

INTXURRE KKE

Ostadar

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala. 5. jardunaldia. Igandean, 16:30ean, Alegiako Elorri futbol zelaian.

DANENA KE

Usurbil

Futbola. Mutilak. Lehen Erregionala. 5. jardunaldia. Larunbatean, 17:00etan, Zizurkilan.

Jacar San Antonio

TOLOSA CF

Eskubaloia. Lehen Nazional Maila. 4. jardunaldia. Igandean, 12:00etan, Iruñean, Arrosadian.

TAKE REDLINE MEKANIKA

BKL Senior Mutilak

Saskibaloia. Lehen Maila. 2. jardunaldia. Igandean, 11:20ean, Usabal kiroldegian.

OSTIRALA URRIAK 12

AMEZKETA, LARRUNARRI

MAHALA PILOTA DESAFIOA

17:30. Esku pilota. Binakako bi partida:

- Espinal-Ibarloza/Mata-Sarasa.
- Eneko Labaka-Apezetxea/Julen Egiguren-Bikuña.

TOLOSA, SAN ESTEBAN AUZOA

XXXI. HERRI KROSA

11:00. Helduen lasterketa. 8,1 kilometroko ibilbide laua. Izen emateko aukera 10:00etatik aurrera, Ferialekuan, 15 euroren truke.

12:00. Tolosako IV. Elkartasun Txiki Krosa. Helduen krosa bukatu eta gero hasiko dira haur eta gazteak bi mailatan: 9 urtera artekoak 500 metro eta 14 urtera artekoak 1.250 metro. Izen ematea egunean bertan eskola materialaren truke. Bildutakoa Saharako kanpamenduetara bidaliko da. **Omenaldia.** Lourdes Gabarain auzokideari omenaldia egingo diote. Gabarain estatu mailan maratokia egin zuen lehen emakumea izan zen.



Jokin Altuna zalantza da astelehenerako. M.I.

IGANDEA URRIAK 14

TOLOSA, BEOTIBAR

MAHALA PILOTA DESAFIOA

17:30. Esku pilota jaialdia:

- Lau eta erdian: Alberdi/Zabala.
- Eskuz banaka: De La Fuente/Igoa.
- Binakakoa: urriaren 12ko bi bikote irabazleak.

ZIZURKIL

GIPUZKOAKO HARRI HANDIEN

HARRI-JASOTZAILE TXAPELKETA

18:30. Zizurkilgo Proba Plazan. Harri-

jasotzaileek egin beharreko lana:

- 16/14 arroako (200/175 kiloko) laukizuzena.
- 16/14 arroako (200/175 kiloko) zilindrikoa.
- 12 arroako (150 kiloko) kubikoa.
- 8 arroako (125 kiloko) bola.

Bi minutuko lana egin beharko dute harri bakoitzarekin. Ondorengo bost harri-jasotzailek parte hartuko dute lehen aldiz antolatzen den Gipuzkoako Harri Handien Txapelketan:

- Jokin Eizmendi Manterola.
- Aimar Galarraga Ibarburen.
- Aimar Irigoien Jauregi.
- Iban Ugartemenida Saizar (Hernialde).
- Jon Unanue Alberdi.

ASTELEHENA URRIAK 15

TOLOSA, BEOTIBAR

LAU ETA ERDIKO TXAPELKETA

16:30. Esku pilota. Lehen Mailako

Txapelketako partida, final-laurdenetako ligaxkako lehen jardunaldia. Pilota jaialdia hiru partidak osatuko dute:

- Dario/P. Etxeberria, Promozio Mailako Lau t'erdiko Txapelketako partida.
- Altuna III/Olaizola II.
- Mendizabal III - Rezusta/Iribarria - Martija.

Jokin Altunak oraindik ez du ziurtatu astelehenean jokatzeko moduan egongo den. Amezketarra lesioarekin dago, eta gaur egingo du froga, jokatzeko moduan dagoen jakiteko.



Zigortzea

Eraso baten ostean, erasotzailearentzat zigorra ozenki eta bero-bero eskatzen dutenek beti sentiarazi naute deseroso. «Kartzelan usteldu dadila», «nik harrapatuko banu... orduan bai, gorriak eta bi ikusiko zituen!»... Nolanahiko injustiziaz ari garela, indarkeriaz jokatu duena indarkeriaz suntsitu nahi duenik ez da falta.

Nire asmoa gaur ez da berbaldi moralista bat botatzea, ezta pazifista ere. Ez diot inori errieta izugarririk egingo. Baina zigorren ezarpenak eta hauen inguruko erronka eta eztabaidetako batzuei heldu nahiko nieke. Azaletik eta nire gogeta pertsonalerako bada ere.

Zertarako zigortu? Sistema honen erantzuna ez da gogobetegarria izaten, ez du kaltea erreparatzen eta ez ditu biktimak euren jitetik libratzen. Zergatik zigortu? Erasotzaile baten sistema penal patriarkalaren bidezko espetxe-zigorak ordaintzen al du gizarte eta biktimekiko zorra? Kriminalen eta kriminalizatuak sufrimenduak aseko al gaitu?

Eraso baten ostean, erasotzailearentzat zigorra eskatu ordez gaiaren sakontasunean urperatu nahiko nuke. Gaitzaren jugularra eriaz erakutsi eta eraso egin. Gure hezkuntza-sistemari eraso: gure sexualitatea adeitasunez arakatzen ez erakusteagatik, lehiakortasunean hezteagatik, frustrazioak kudeatzeko tresnak ez emateagatik. 'Lerdotzebide' masiboei era-

so: sexismoa geure burmuinetan ezartzeagatik, doktrina patriarkalaz blaitutako albistegi eta fikzioen bidez. Sistema kapitalista zapaltzaileari: biolentzia, frustrazio eta desperekotasun guztien iturburu izateagatik.

Ez genuke morroi baten zigorra irrikatu beharko. Zertarako? Nagusiarekin, gerentearekin, mafiaburuekin, kolonizatzailearekin, artzapezpikuarekin, honen guztiaren buruzagiarekin kontuak errendatzea baizik.

Sistemaren bihotz bizigabea eskatu beharko genuke plazan, eta ez honen produktu hutsa den peoiaren hitza.



OLATZ GODOY
ATARIA IRRATIA 107.6 FM



Isileko agentea

ipuin erotikoa

Euskal Herriko Inteligentzia Zerbitzutik (EHIZ) telegrama bat jaso berri duzu: «0376 Agentea STOP Misio berria STOP "Txoko txiki" hotela STOP 4. gela STOP Urriak 5 STOP 22:30ean STOP Amets Urkiaga STOP Ile horia STOP 1,65m FULL STOP».

2018-10-11, 22:30. Ez dago inor gelan, bertako maleta eta kaxoi guztiak arakatu dituzun arren, ez duzu ezer berezirik aurkitu, beraz, bilau horrek gainean eramango du bilatu behar duzun guztia. Txartela sarrailan sartzen entzuten duzu eta ziztu bizian hutsik dagoen armairura sartzen zara. Atea ez da ondo ixten eta soinu gehiago atera baino horrela geratzea erabakitzen duzu, zirrikitu txiki batekin. Alkanfor usainera ohitzen zarenean konturatzen zara arazorik gabe ikus eta entzun dezakezula gelan gertatzen dena:

Bi pertsonen ahotsak entzuten dituzu. Zure ikus-eremua sartzen den lehena Amets bezala identifikatzen duzuna da, jasotako deskripzioaren arabera. Alkoholak argi ondutako irribarrea darama soinean, ohearen ertzean eserita bere gelakideari hitz gutxi batzuk «esaten dizkionean». Nahiz eta bere egoera nahiko barregarria izan, badu zerbait erakargarria egiten duena: ilea motots trakets batean du bildua, bere begi berdeek argi dute zer nahi duten eta etengabe ari da bere lepoa laztantzen, jolas eremua prestatzen ariko balitz bezala. Gelakidea eskutik heltzen du: «Odei, zatoz hona». Zuek bion artean silueta bat kokatzen da, handiagoa, estilizatu eta ile motxagoarekin. Denbora gutxian, Amets besotan hartu, ohearen erdian kokatu eta musu sakon bat ematen dio. Alkoholarek eraginez lokartutako garunaren inhibizio atalak K.O. daude, eta Ametsek plazerezko aprobazio oihu bat botatzen du musuaren erdian. Bi gorputzak pittin bat banatzen dira elkarren aurpegietara begiratzen direlarik. Ametsek, Odei lepo atzetik eutsi eta beste musu sakon bat ematen dio, eta lepoan behera hasten da joaten. Ametsek ohea desegiten du eta Odei bertan murgiltzen da. Ezer ikusten ez den arren argi dago zertan ari den hor behean: Amets ohearen goialdean uzkuertzen ari da etengabe, arnas-estuka, ahoa indar handiarekin ixten. Minutu gutxiren buruan bere aurpegian lasaitasuna ikusten da eta oihu ia xuxurlatu baten ostean bere gorputza erlaxatzen da. Maindirepetik Odei irteten da eta emeki besarkatzen du bere maitalea, biak lokartzen diren arte.

Ordu erdiren buruan, armairutik irteten eta isilpean arakatzeko duzu kendu duten arropa, bakero batzuen atzealdean USB bat aurkitzen duzu eta gelatik irteten zara.

Orain galdera batzuk: Zein sexutakoa da Amets? Eta Odei? Zenbat urte ditu bakoitzak? Amets gorpildun aulkian egon litekeela pasa al zaizu burutik? Edota Odei gorra dela? Esan, zerikusiren bat du emandako deskribapenek ideia horien eraketarekin?



**JON IMANOL
ETXABE**
SEXOLOGOA

«Ametsek, Odei lepo atzetik eutsi eta beste musu sakon bat ematen dio, eta lepoan behera hasten da joaten»



Mingaina
Txulora saioa:
www.ataria.eus

Denboraldi berria:

Urriaren 19an, ostiralean, 21:00etatik aurrera eta asteartean ordu berean, 107.6 fm dialean edota ataria.eus helbidean ariko da Jon Imanol Etxabe *Mingaina Txulora* saioan.

“

Sari batek ez du idazlea egiten, eguneroko lanak egiten du

JUAN KRUZ IGERABIDE
IDAZLEA

Espainiako Haur eta Gazte Literatura saria eskuratu du Igerabidek idatzi duen ‘Abezedario titirijario’ liburuak. «Poz handi batekin» jasoko du saria baina «egoskorra» izaki lanean segitzeko asmoa du, «orain arte bezala».

”

Jon Miranda

Euskal Herriko idazleen artean giro ona dutela aipatu du Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956), elkar ezagutu eta gertuko harremana dutela. Sariak, beste sortzaileekin harremanetan jartzeko aukera emango diola uste du.

Nork jakinarazi zizuen Espainiako Haur eta Gazte Literatura saria eman zizutela?

Justu, epaimahai buru, Olvido García Valdesez deitu zidan. Alabaren etxean nengoen une hartan, umezain. Felix

Ibargutxi kazetariak, handik bost minutura hots egin zidan, eta gero, epaimahaian egon den euskal ordezkari-tzak: Mariasun Landak eta Marijo Olaziregik.

Espero al zenuen saria?



Nola bada? Egon izan naiz aldi batzuetan finalista, baina ezin duzu espero, karanbola asko gertatu behar baitira saria zuri emateko. Poz handi batekin jaso dut, horrelako gauza bat beti da pozgarria, ostiko bat jasotzea baino hobea.

Jende asko akordatu al da zurekin saria eman eta gero?

Bai, lagun guztiak. Ezagun eta lankide izanak hots egin didate, baita kultura munduko jende askok ere. Aspaldi ikusi gabeko jende batek ere, poz handia hartu du sariarekin, haiek nola piztu diren ikusteak ilusio berezia egin dit. Hori oso polita izan da.

Sari banaketa ekitaldirik izango al da?

Nik, beste batzuegandik jakin dudanez udaberrian izaten omen da. Hiri bat aukeratzen dute –ez dakit zein aukeratu duten aurten– eta han biltzen dira, genero eta arlo guztietako saridunak. Arratsalde pasa bat izango da.

Zuretzako motibagarri al da horrelako sari bat jasotzea idazten jarraitzeko?

Bai, noski. Lehen ere motibatuta nengoen. Beti izan naiz egoskorra eta segitzeko asmoa nuen eta oraindik ere badut. Baina bai, horrelako gauza batek ematen dizu nolabaiteko bultzada eta proiektu gehixeagotan parte hartzeko aukera. Ni orain arte oso gustura ibili naiz atera zaizkidan proiektuetan. Ez dut izugarri aldatzea pentsatzen, baina agian, gauza berriak aterako dira sariaren aitzakiarekin. Hori ere polita da. Gainera, momentu ona da akordatzeko sari batek ez duela idazlea egiten. Sari batek, ilusioa eta poza ematen dio idazleari, laguntzen dio ekonomikoki edo bultzada bat ematen dio gizartean, baina sari batek ez du idazlea egiten; egiten du eguneroko lanak, egiten du berak lortzen duen arte mailak eta hor badaude idazle dezente, maila oso handia dutenak, eta saritu

gabe daudenak. Hori kontuan izan behar da, funtsa non dagoen ez genuke begi bistatik galdu behar, sariak arrisku hori ere badu eta.

Bigarren aldia da Espainiako Haur eta Gazte Literatura saria euskarazko lan bati ematen diotela.

Mariasun Landak irabazi zuen 2002an *Krokodiloa ohe azpian* liburuagatik. Eta etorriko al da besteren bat ere. Helduen literaturan bat baino gehiago izan dira, Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi... Poesian ere euskarazko lanen bat saritzeaz egon dira. Ea aurrerantzean gehiago datozen.

Proportzioan, estatuko gainerako lurraldeekin alderatuta Euskal Herrian haur eta gazte literatura gehiago ekoizten da?

Antzera gabiltzala esango nuke. Haurrentzako asko argitaratzen da, batez ere, dibulgaziorako edo auto-laguntzarako, helburu hezitzailearekin egindako liburuak dira gehienak. Nik

literatur maila bat eskatzen diot literatura deitu ahal izateko, eta hor, kopurua jaitsi egiten da. Beste alde batetik, hezkuntza sartzen da eta haurrari gauza atseginak eskaintzea oso garrantzitsua da. Politak eta gustuarekin eginak behar dute izan haurra irakurketara erakartzeko. Baina horko alortxo bat baino ez da literatura. Eta oraindik ere txikiagoa, poesia.

Eta 'Abecedario titirijario' lan honen helburua zein izan da?

Nik uste dut liburu zabaldu orduko garbi dagoela helburu literarioa duela. Hor hitzarekin jolas egiteko literaturan ibili izan diren modu mordo bat agertzen dira. Hurbilketa poetiko bat da eta gero hurbilketa narratibo bat badago liburuan. Ipuintxo bat azaltzen da, oso xumea eta txotxongilo eta antzerkiaren munduari lotua dagoena.

Liburuan ageri diren oihartzun sinbolisten aliterazioa, nonsense umorea, absurdoarekin duen lotura, fantasia rodariarra eta euskal tradizioaren oihartzuna nabarmendu ditu epaimahaiak. Ados zaude?

Bai. Nik uste dut nabarmena dela. Jolas rodariarrak segituan ikusten dira eta nonsenseren eragina ere bai. Denbora daramat, hain zuzen, nonsenseko autore batzuk itzultzen, beraz ikusten da horren eragina. Aliterazioaren kontu horrekin, baten batek ikusi dezake aho-korapiloen oihartzun bat, baina horiek helburu poetiko-sinboliko bati erantzuten diote, beste dimentsio bat hartzen dute. Poematxo bakoitzak zentzua du, osotasunarekin lotuta.

Abecedarioaz ari gara, beraz, helburu hezitzailea ere badu liburuak?

Abecedarioa esaten duzun momentutik badirudi letrak eta idazkera ikaste-ko liburu bat dela. Baina hemen, batez

ere, jolaserako apustu bat dago. Eta proposamen bat dago, amaieran, jolas egiteko: 'bilatu itzazu zuk ere letren formak, naturan, gorputzean eta inguratzon zaituen guztian'. Letrak ez dira zerbait mekanikoa irakurtzen ikaste-ko. Letrak, forma batzuk dira eta forma horiek bazter guztietan daude. Horrek ematen dio beste dimentsio bat, dimentsio poetiko bat abecedario bati. **Soinuekin gauza bera egin daiteke.**

Bai. Liburuan dagoen kode baten bidez audio bat jaitsi daiteke eta hor beste proposamen bat dago, erritmikoa. Horrek ez du, berez, helburu pedagogikoa baina hezkuntzan ere erabil daiteke modu horretan, irakurketari beste indar bat emateko. Literaturak hori egiten du: irudimena pizten du, pertsonaren eguneroko kezka horiekin denekin lotzen du eta irakurketa bihurtzen du zerbait bizia, pertsona oso sakonera lotzen duena. Irakurketa mekaniko batek egiten ez duen gauza bat da.

Zergatik 'Letren txotxongiloa' azpiztitulua?

Txotxongiloa dago, nolabait, haurren fantasian. Mundu imajinarioaren irudikapen bat da. Hori alde batetik, baina bestetik, letrak hemen tratatu diren bezala, lotuta daude, batez ere, natu-

rarekin eta gizakiok sortzen ditugun objektuekin. A eskailera bat da, S zisne bat da, H jirafa bat da... Hartzen dugu natura eta txotxongilo baten bidez irudikatzen dugu. Hori guztia, istorio batek esplikatzeko du, zergatik gertatzen da hori guztia? Inguratuta gaude letren formez, guk begiratzen dugunean imajinatzen ditugu, ez daude, berez, errealitatean, baino lan honek horretako bidea eman nahi du.

«Badirudi letrak eta idazkera ikasteko liburu bat dela, baina batez ere jolaserako apustu bat dago 'Abecedario titirijario'-n»

Non dago zure inspirazio iturria sortzerako garaian?

Egunerokotasunean. Idazle askoren kasua da, baina niretzat behintzat baliabide iturri, inspirazio iturri, lan iturri da egunerokotasuna. Abstraktura jo baino, nahiago dut eguneroko elementuekin jolastu. Nahiz eta hori gero lotzen den irakurtzen duzunarekin, buru lanketa intelektual batekin edo gauzarik abstraktuenarekin, musikarekin, pinturarekin edo artearekin. Egunero ikusten ditugun gauzak dira liburu honetan agertzen direnak.





Zein urtetako umeengan pentsatuta dago 'Abecedario titirijario' hau?

Ez dugu adinik zehaztu erabilera maila asko dauzkalako. Audioa, adibidez, hiru urteko nire bilobak jolasteko erabiltzen du. Gero, bost edo sei urterekin, badago formetarako joera bat eta irakurtzen hasten denaren curiositatearekin hurbildu daiteke lan honetara. Nik, batez ere, zortzi eta hamar urte arteko umeekin erabili izan dut, beraiek hasten baitira bazter guztietan letrak ikusten. Aukerak asko dira, baldin eta nondik jotzen den.

Beharrezkoa al duzu harremana txikienekin haur literatura egiterako orduan?

Ez da ezinbestekoa, idazle handiak izan dira oso lan ederrak egin dituztenak umeekin harreman handirik izan gabe. Baina niretzat hasieratik motibagarri izan da. Maisu ibili nintzen urte askotan eta hortik etorri naiz ni haur literaturara. Jarraitu dut eskolara bisitak egiten eta emanaldiak eskaintzen. Orain bilobarekin. Harreman hori mantentzen dut niretzako naturala izan delako, hortik etorri naitzelako. Agian hori izan ez banu, poema batzuk idatziko nituen helduentzat, liburu pare bat edo hiru atera eta

kito. Uste dut erraz egiten dudala umeenganako hurbilketa, niri nahikoa naturala egiten zait. Ez dut ahalegin handirik egin behar jolas horiek asmatzeko eta proposatzeko. Ez du esan nahi beti ondo ateratzen denik, baina irakasle izan bazara, sukalderraino sartzea errazagoa da.

Adunako herri eskolako umeek ere zure obra bat taularatu berri dute, 'Ur: erori nahi ez zuen tanta'.

Hunkigarria izan da niretzako. Herriko umeek egitea, lan zail xamarra zena, hain txukun eta hain ondo egitea zoragarria izan da. Haiekin badut harremantxo, sariagatik zoriondu naute euren blogean eta erantzun diet. Inguruan ere harreman asko izan ditut, Zizurkilan edota Villabonan. Oinkariko gazteekin ere aritu izan naiz. Horrek bizia ematen du. Etxean bakarrik zuk sortzen duzuna konpartitzea izugarria da; bizi poza ematen du. **Kanpokoarekin lotura hori eta harreman horiek izatea beharrezkoa izaten duzu?**

Zuk idatzitako gauza baten inguruan beste pertsona batek egiten duen irakurketak, ez dut zure testua zeharo aldatzen duenik esango, baina adi egoenez gero, gauza asko erakusten dizkizu. Azken batean, bihotza eskaintzen

ari zaizu. Birsortu egiten da zuk sortutakoa. Aski da, beste batek irakurtzea zure testua, nola irakurtzen duen ikusi, 'honek beste gauza batzuk harrapatzen ditu' pentsatzeko. Nik bizi izan dudana esperientzia grafikoena, *Botoi bat bezala* liburuarekin bizi izan nuen; bigarren poeman esaten da, 'ume jaio berriak begiak ireki, bi eguzki'. Nik seme jaio berria neukan buruan eta begiak zabaldu zituen unean, nik bi eguzki ikusi nituen. Baina marrazkilariak irakurri zuenean, umearen barruan sartu, begiak zabaldu eta haurrak amaren bularrak ikusten dituela irudikatu zuen. Hori izan da bizi izan izan dudana esperientzi bortitzenetakoa. Ikusten duzu zuk idatzitako gauza bat, beste poema batean bihurtzen dela, beste pertsona baten bizipenekin lotzen denean. Hori izugarri aberasgarria da.

«Horrelako sari batek ematen dizu nolabaiteko bultzada eta proiektu gehixeagotan parte hartzeko aukera»

Haur eta gazte literatura al da zure esparrua?

Herri literatura eta poesia aztertu izan dut dezente unibertsitatean, eta lanik gehiena, haurren esparrura ekarri dut. Bestea ez dut ahazten. Gustatzen zaizkit filosofia, poesia edo narratiba, irakurri eta aztertzen ditut. Lanik handiena eta zabalena hemen, alor honetan joan da. Hori besteek esan beharko dute, baina nire ekarpen interesgarriena, baliteke, haur literaturan izatea. Besteek esan beharko dute.

Gizarteak zer nolako aitortza egiten dio haur eta gazte literaturari?

Egon da, orain baino gehiago lehen, bigarren mailako literatura bat denaren irudipena, baina geroz eta gutxiago gertatzen dela uste dut. Hemen Euskal Herrian, idazle handienak eta

ospetsuenak, denek edo ia denek idatzi dute haurrentzat zerbait. Bernardo Atxagak, Koldo Izagirrek, Joseba Sarrionandiak, Mariasun Landak, Patxi Zubizarretak, Anjel Lertxundik, Harkaitz Canok... Ez dut ikusten momentu honetan atsedean hartzeko egiten dutenik. Nik ikusten dut ahalegin osoa jartzen dutela, baita ere, umeentzako lan bat egiten dutenean. Duin-tze prozesu batean goazela esan nahi du horrek. Helduentzat ere idatzi izan dut nik. Apustu luzeagoak eta tentsio handiagokoak izaten dira, baina ahalegin estetiko gisa, ahalegin bera jartzen dut. Eta apustuak, batzuetan irabazi eta besteetan galdu egiten dira, haur nahiz helduentzako idatzi.

Ahozko euskal tradizioa dago zure lanen oinarrian. Tradizio horren transmisioa eten dela uste duzu?

Transmisioa dezente etenda dago, baina berreskuratu daiteke, zorionez, bilduta dagoelako. Berritu daiteke, jolastu daiteke tradizioarekin eta badaude hori egiteko esparruak. Esparru bat da, beti funtzionatzen duena, ohe ondoa, gurasoa eta umea. Eta ahal bada, esaten diet nik gurasoei, libururik gabe, ahotik etorri dadin. Eta gero, beste leku batzuk dira gaur egungo liburutegiak. Ardura handia dute liburuzainek ahozko tradizioa ezagutu eta liburutegira ahozko kontalariak eramateko. Ardura hori hartu behar dute lan horretan ari direnek. Bertsolaritzaren munduan, badakit kezka hori ba-

dagoela eta haurrenganako programa eder bat badute. Hor badago aukera tradizioa berpizteko, ohe ondoan, liburutegietan eta eskoletan. Lantxo bat egin daiteke, eta gainera, bazterrak gehiegi nahastu gabe, modu naturalean. Adibidez, musikako irakasleek bakarrik ez, batez ere txikienekin dabil-tzan irakasleek, leloak kantatu behar dituzte. Hori ia-ia denborarik hartu gabe, modu naturalean egin daitekeen gauza bat da, eragin izugarria izan dezakeena. Horrek gero hizkuntza sena indartzen du eta umeekin ezinbestekoa da lan hori. Lehen hori, herri bate-

«Gaur egun ardura pixka bat jarri behar da, mila gauzogatik [ahozko transmisioan] etena etorri delako»

an bizi bazinen berez zetorren, baina gaur egun ardura pixka bat jarri behar da, mila gauzogatik etena etorri delako. Konturatzea eta hastera bakarrik da.

Internet eta sare sozialak baliatu al daitezke tradizioaren transmisiorako?

Bere lekura eraman behar direla iruditzen zait, eta kostako zaigu. Gizakiontzat baliabide izugarri bat da Internet. Baliabideekin zer gertatzen da? Ez badira modu egokian erabiltzen kaltegarri bihurtzen direla. Neurologoek ere esaten dute, zenbat eta adin txikiagoa izan, orduan eta gutxiago erabili


behar dira gailu horiek, baita telebista ere. Baina gero edukiaren kontua dago. Interneten badaude eduki onak, badaude herri tradizioa jasotzen duten edukiak. Badaude pieza ederrak, literarioki, musikalki... aukeratzen ikasteko zentzu pixka bat behar da. Honek eskatzen du formazio bat gurasoentzat eta serio hartu beharra dago erauntsia ikaragarria delako. Frustrazioa eragin gabe, alternatiba politak eskainiz, nora jo jakin behar da, bestela aurrea dator-kiguna irentsiko dugu. Kolpetik etorri zaigu eta guk geuk ere trasteak ondo maneiatzen ez ditugula harrapatu gaitu aldaketak.

Zein lan duzu eskuartearen epe motzera?

Aste honetan inprentara joango da *Euskal herrietako ipuingaiztoak* izeneko, Elena Odriozolaren irudiekin. Trilogia bat da eta hau dugu bigarren lana. Saila osatzeko, laugarren bat egingo dut nik asmatua. Baina hori aurrerago izango da. Helduentzako aforismoak atera berriak ditut eta hurrengo liburua auskalo noiz aterako dudana. Badaukat material dezente, baina landu egin behar da. Poesian, berriz, zain nago. Gauzatxoak dauzkat, baina ez liburu baterako lain, gauza solteak baizik. Ez daukat presarik. Narratiban ere badago historia bat kontatu nahi dudana, oso gertutik bizi izandakoa, fikzio bihurtuko dena. Hori ere egunen batean kontatu nahi nuke, ez dakit noiz, baina asmoa badut.



Elena Laura ilustratzaileak 'Abecedario titirijario' lanerako osatu dituen lau koadroak kuadriptiko batean lotu ditu Denon Artean argitaletxeak. ATARIA



Igerabide, Plazida Otaño liburutegiko erakusketa gunean apirilean eskainitako tailerrean. ATARIA

Ilustrazioak, paperetik erakusketa aretoetara

Elena Laura margolariak liburutegiko erakusketa gunean apirilean eskainitako tailerrean. ATARIA

J.M.

Juan Kruz Igerabide ez da *Abezedario titirijario* liburuaren egile bakarra. Elena Laura (Granada, 1955) ilustratzaileak osatu ditu liburuak irudiak. Igerabideren emaztearen txikitako laguna da Laura eta urte askoan harrereana galduta eduki ondoren, «kasualitatez» egin zuten topo duela

gutxi. Orduan etorri zen elkarrekin lan egiteko aukera.

Libre utzi dio Adunako idazleak ilustratzaileari lan egiten. «Normalean galdetuz gero argibideak ematen dizkiot, baino niri idazterakoan askatasuna uzten didaten bezala, ilustratzaileak ere horrela behar du». Laurak liburuan islatutakoarekin erabat konforme geratu da Igerabide: «Sentitu nuen nire buru barruan sartu eta nik sortutako munduan paseatzen ibili zela Elena».

Lau hizkuntzatan –euskara, galegoa, katalana eta gaztelania– atera

dute *Abezedario titirijario* lana eta Igerabidek aitortu duenez, «malabarismo» batzuk egin behar izan dituzte abezedariora egokitzeko xafra berdinak erabiliz. «Asmo batzuk eraman eta argitaratzailea etortzen zaizu esanez, hainbeste diru ordaintzerik ez dagoe-la».

Argitaletxeari «meritu handia» aitortu dio idazleak, Laurak «dotoreziaz» egindako lau koadro josi dituelako kuadriptiko batean eta liburuarekin batera banatu. «Gutxitan gertatzen da argitaletxeak ausardiaz jokatu eta horrelako abenturetan sartzea», esan du Igerabidek.

Elena Laurak *Abezedario titirijario* lanerako prestatu dituen koadroak bi alditan erakutsi dituzte, orain arte, jendaurrean. Zizurkilen apirilean jarri zuten erakusketa Aiztondoko Plazida Otaño liburutegian eta Igerabidek berak tailerra eskaini zien bertaratutako umei: «Oso harrera polita egin ziguten liburutegiko arduradunek eta tailertxoan egindakoa bideo batean jaso genuen». Beste maila bateko esperientzia izan zuten, udan, Alkizako Ur mara museoa, «ikuspegi artistikoa goarekin, baina beti ere haurtasuna presente zegoela». Hamabost egunetan izan zen erakusketa ikusgai eta hainbat ekitaldi ere egin zituzten bertan. Laura bera ere Alkizan izan zen eta inaugurazio ekitaldian parte hartu zuen.

Hemendik aurrera, erakusketa beste hainbat tokitara eramateko prest daude. «Doan ematen dugu eta toki aproposa eta obrak zaintzea besterik ez dugu eskatzen». *Abezedario titirijario* lana zabaltzen jarraitzeko asmoa dute egileek, Espainiako Haur eta Gazte literatura saria irabazteak obrari emango dion bultzada baliatuta.



“

«TRIKITIARI BERE LEKUA EMATEN DIO»

ENERITZ AULESTIA ETA ANDER MALBADI TRIKITILARIAK

Etenaldi baten ostean, larunbatean 12:00etan hasiko du denboraldi berria ‘Hauspo Artean’ trikiti saioak, ‘Ataria Irratia’-n; hamabostean behin izango da eta Ander Malbadirekin batera Eneritz Aulestiak egingo ditu gidari lanak

”

I. Terradillos – E. Maiz

Pasa den urteko geldialdiaren ostean indarberrituta dator ATARIA IRRATI-ra *Hauspo Artean* trikiti saioa. Ander Malbadi albizturtarrarekin batera, saioko gidari lanak egingo ditu Eneritz Aulestia zarauztarrak.

Trikitiarekin lotutako bi pertsona zarete. Nondik datorkizue harreman edo lotura hori?

Eneritz Aulestia. Txikitatik dudala lotura esan dezaket nik. Zarauztarra naiz ni, eta nire aitona betidanik izan da erraldoien eta buruhandien arduraduna. Txikitatik ikusi dut trikiti eta panderoarekin kalejiran, eta beti joa-

ten nintzen pandero txikia eskuan hartuta jotzen. Hor hasi nintzen eta hortik egin nuen salto oholtza gainera. Ez dut lotsarik izan inoiz. Solfeoa ikasten hasi nintzen, eta argi neukan trikitia ikasi nahi nuela. Ikasten ari nintze-la aukera eman zidaten txapelketetan panderoa jotzen hasteko eta hor egin dut ibilbide bat. Geroz eta lotura estuago sortzen joan da, eta gaur egun nire bizitzako zati garrantzitsu bat.

Ander Malbadi. Nik ere umetatik dut harremana. Nire aita trikiti irakaslea da, eta Tolosan jaio nintzen etxean bertan erakusten zuen trikitia. Umetatik entzun ditut trikiti doinuak. Berak esaten du guk aukeratu genu-

la, baina nik ez dakit... erdi diktadura bat izan zen edo ez. Baina kontua da ume-umetatik hasi ginela ikasten eta bizitzan beti presente egon da trikitia.

Zure kasuan, Ander Malbadi, aurreko denboraldian ‘Hauspo Artean’ saioko gidari izan zinen. Nola hartu zenuen erronka hori?

A. M. Gustura. Aurretik ibilia nintzen Telleria anaiekin irratian *Gaztea*-n kolaborazio batzuk egiten, eta hori bukatu zenean segidan etorri zen aukera hau. Alde batetik irratiarekin lotura bat zelako, eta bestetik trikitiarekin lotuta zelako, biak lotzeak pertsonalki gustu handia eman zidan. Eta asko bali-
lio izan zidan trikitiaren inguruan



gehiago ezagutzeko, agian lehen oso azaletik ezagutzen nituen gaiak-eta. Pertsonalki oso erabilgarria egin zitzaidan.

Orain berriz biren artean egingo duzue saioa. Zuk nola hartu duzu Eneritz Aulestia erronka berri hau?

E. A. Gogoarekin. Eta nik uste dut beharrezkoa dela trikitiari buruzko horrelako saio bat egotea. Beti ohituta gaude musika komertziala dela eta irratietan trikiti oso gutxi entzuten. Gazte askoren artean ere esango dut

trikitia gauza zaharkitu bat dela, edo gauza tradizionalarekin lotzen dela uste dut. Orain zorionez baditugu taldeak irrati komertzialetan ere entzuten direnak, baina uste dut atzera begirada hori egitea ere garrantzitsua dela eta badagoela jendea trikitia entzun nahi duena, eta horrelako historiak entzun nahi dituenak, beraz, guztiz beharrezkoa da.

Trikiti klasiko zaleak gehiago zarete edo uztarketa zaleak?

E. A. Nik denetik entzuten dut, eta trikiti munduan dena dela libre uste dut.

Dena gera daiteke ongi, bai trikiti eta panderoa soilik, baita trikitia musika elektronikoarekin nahastuta ere, edota gitarra edo biolin batekin. Musika batek funtzionatzen du benetan barrutik ateratzen denean, egiten denean benetan nahi dena eta gustatzen dena. Nire kasuan, Laja eta Landakanda, Esne Beltza, Gozategi, Koban... denetarik entzun dezaket. Hori da polita azkenean, trikititik gauza ezberdin pila bat ateratzen direla.

Tradizioari eustearekin lotutako eztabaida dirudi.

«Musika batek funtzionatzen du benetan barrutik ateratzen denean, egiten denean benetan nahi dena eta gustatzen dena»

ENERITZ AULESTIA
TRIKITILARIA

A. M. Trikitia beti lotu izan da tradizioarekin. Orain baino gehiago, lehen zatiketa moduko bat sortu zen berrikuntzak etorri zirenean. Batzuk tradizionalaren alde geratu ziren, berritasuna nolabait «inpuroagoa» zelakoan edota tradizionala galdu araziko lukeen zerbait bezala ikusten zutelako.

Gaur egun gaztetxoek ikasten al dute?

E. A. Ikasle asko daude. Trikitixa Elkartek errolda egin du ikusteko ikasleen kopurua, eta asko daudela esan beharra dago. Hori bai, askotan errepikatzen den kontua izaten da ikasleak trikiti eskoletara joan eta hasieratik eskatzen dutela Huntza edota Esne Beltzaren kantuak jotzen ikasi nahi dutela. Baina, horretara iristeko bide bat egin behar duzu, eta oinarritzko piezak joz hasi behar duzu.

A. M. Beste instrumentuekin ere berdin gertatzen da. Pianoa ikasten duen batek ere oinarritzko piezak joz hasi behar du. Eta behin hori menperatuta erabili ahaldu du pianoa iruditzen zaiona jotzeko. Azken batean, trikitia beste instrumentu bat gehiago da, eta erabili daiteke musika mota desberdinak egiteko. Posible da pertsona bati estilo bat ez gustatzea, baina, azkenean instrumentuarekin maiteminduta gaudenontzat, niri, esaterako, ez zait gustatzen aukeratu behar izatea estilo desberdinak. Gainera, musikazale garenok ez zait iruditzen genero bat modu errazez baztertzen dugunik, eta trikitiarekin gutxiago oraindik.

Zerekin uztartzen da egokien? Edozerekin nahastu daiteke?

A. M. Badirudi baietz. Baina, eta beste instrumentuak edozerekin uztartu daitezke? Pianoa edota biolina edozerekin nahastu al daitezke? Trikitia biolinarekin entzun dugu, musika elek-

tronikoarekin... Gaur egun normalizat dugu, baina hasieran, gitarrekin nahastea pentsaezina zirudien.

E. A. Lehen trikitia panderoarekin lotzen zen, eta orain panderoaren ordeztuak batera izatea ederki ikusten dugu.

A. M. Perkusio batek laguntzerako orduan ez du zertan panderoa soilik izan aukera. Kajoia ere izan daiteke edo beste zerbait. Musikak berak ez du ulertzen bereizketarik. Musika notak elkarren ondoan jotzea da, eta instrumentuak bere tinbrea ematen dio, harpa izan edo trikitia izan. Melodia da, eta instrumentu bakoitzak bere berezitasuna ematen dio.

Urte okerragoak pasa al ditu trikitiak. Boladan dago gaur egun?

E. A. Ez dakit urte okerragoak pasa dituen. Agian bai. Nik Zarauzko Musika Eskolan ikasi nuen, eta musika tresna asko genituen aukeran, pianoa, akordeoia... Gogoratzen dut trikitia ikasi nahi nuela esan nuenean irakasleak berak gomendatu zidala solfeoa ikasi nuenez pianoa edo biolina ikasteko. Nire ustez, musika eskola batzuetan ez zaio hainbesteko garrantzia eman trikitiari. Orain trikitia edo panderoarekin hasten diren gazteek oso argi dute hori ikasi nahi dutela.

A. M. Agian trikiti munduan murgilduta egon garenok ez dugu aldaketa nabaritu, gu beti egon garelako trikitiaren atzetik. 90. hamarkadan gorakada izan zuen, eta gero agian jarrai-

kortasuna falta izan zaio. Gaur egun, edo azken hamarkadan edo, Huntza edota Esne Beltza bezalako taldeekin trikitia beste genero batzuetan azaltzen ari dela ikusten ari gara. Eta horrek, agian, bai lagundu diola trikitiari gora egiten. Trikipoparekin geldialdi modukoa eman zen, eta zerbait berria behar zuela iruditzen zait.

E. A. Orain trikitia gehiago ateratzen da kalera. Lehen erromeri talde bat sortzea zailagoa zen, eta orain erromeri talde ugari dago.

Trikitiarekin lotutako ekoizpen berri bat dagoenean entzuteko irrikaz egoten zarete?

A. M. Bai. Gaur egun sare sozialei esker errazago da gainera. Sare sozialean ditugun lagun asko mundu horretakoak dira, beraz, elkarbanatu egiten ditugu gure artean ekoizpen berriak. Gainera, zuk musika tresna hori jotzen duzun unetik beti duzu kuriositatea tresna horrekin sortutakoa entzuteko. Gero gustatuko zaizu edo ez. Tradizionala izan edo berria. Batek egin dezake fandango bat trikitiarekin eta oso polita iruditzen zaizu, eta beste batek, berri, nahastu dezake hainbat tresnarekin eta agian ez dizu hainbeste grazia-rik egin. Beraz, denetarik dago. Trikitia izate hutsa ez da nahikoa gustatzeko. Trikitixa Elkartek, bestalde lan handia egiten du zabalkundean, zerbait berria sortzen denean ezagutzera emateko.





«Musikak berak ez du ulertzen bereizketarik. Melodia da, eta instrumentu bakoitzak bere berezitasuna ematen dio»

ANDER MALBADI
TRIKITILARIA

Saioaren bigarren denboraldia berrikuntzez betea dator. Zer izango da?

E. A. Orain arte gonbidatu bat elkarrizketatzen zen saioan, eta trikitiaz zuen loturaz eta bere bizitzaz hitz egiten zen batik bat. Aurten horri buelta bat eman diogu eta pertsonetan zentratu ordez, gaiak aterako ditugu mahai gainera. Gai horren inguruan hitz egin dezaketen hiru pertsona elkarrizketatuko ditugu ikuspuntu desberdinak eskaintzeko.

Zer gai lantzen hasiko zarete?

A. M. Aristerrazuko erromerien hasiera saioaren hasierarekin batera zela ikusi genuen, eta gai egokia iruditu zitzaigun denboraldi berriari ekiteko. Gure asmoa da urtean zehar izaten diren beste trikiti ekitaldiak ere irratira ekartzea eta lantzea.

Erromeriak aipatu dituzuela eta, zer egoeratan daude egun?

E. A. Helduak dira oraindik ere protagonista erromerietan, baina, gazteen kopuruak gora egin duela esango nuke. Ni ahal dudanean joaten naiz Aristerrazura eta gazte asko ikusten ditut, eta ez soilik trikitia jotzen dutenak. Helduen artean ere esaten digute gazteen artean gorakada eman dela.

Zergatik eman da gorakada hori?

E. A. Ez dakit zergatik izango zen.

A. M. Faktore askorengatik izango da. Trikiti ikasle direnek ikusi nahi izaten dituzte ondo jotzen duten trikitilariak.

Ikasten ari diren pieza horiek nola jotzen dituzten ikusi nahi dute. Bestetik, dantzariak daude. Dantza ikasten dutenek praktikatu nahi izaten dute. Herriko festetan izan dezakete aukera, baina, gisa honetako erromeriek aukera handiagoa ematen dute horretarako. Bi mundu horiek uztartzen dira eta horrek erakartzen du jendea.

Trikitixa Elkartearen babesa du saioak.

E. A. Elkartek lan handia egiten du trikitiaren arloan. Trikitiak zer behar duen, jendeari zer gustatzen zaion... Gaiak proposatzerako orduan, esaterako, laguntza handia izango da guretzat.

A. M. Saioa ez da Trikitixa Elkartek sortutakoa izan, baina beste ekimenekin egiten duen moduan, saioaren berri izan duen unetik babesa eta laguntza eman du. Gaiak proposatzean, kontaktuak... laguntza handia da. Beraiei guri baino informazio gehiago ere iristen zaiela kontuan hartu behar da, beraz, babes hori izatea garrantzitsua da.

Horrelako trikiti saio bat egitearen garrantzia nola baloratzen duzue?

A. M. Beti dugu joera bertsolaritzarekin konparatzekoa, eta beraien kasuan beti izan dute saioaren bat telebistan edota irratian. Trikitiak, ordea, falta zuen. Trikitiari bere lekua ematen dio. Azken batean gazteei nekez gustatuko zaie trikitia entzuten ez badute.

Agian euren borondatez ez dira hasiko entzuten, baina, ATARIA IRRATIA entzuten ari badira, eta *Hauspo Artean* irratia egokitzen bada eta trikiti piezak entzuten badituzte horrek bultzatzea lezake gustatzera, eta ondoren Aristerrazura joatea. Izan ere, agian, askok ez dute Aristerrazuren berririk, beraz, nekez joango dira hara. Azken batean, presentzia hori garrantzitsua da, eta hortik aurrera norberak aukeratuko du gustatzen zaion ala ez.

Nolako harrera espero duzue?

A. M. Harrera oso ona izan zuen eskualde mailan, eta batez ere sare sozialetan. Trikitizale asko dago zain zer egiten den entzuteko, eta horregatik, sare sozialetan asko elkarbanatu zen. Iruditzen zait lehen denboraldia gustatu zitzaion jendeak entzuten jarraituko duela. Gainera, Eneritzekin egiteak lagunduko du saioa gehiago zabaltzen.

E. A. Trikiti munduan gabiltzanok asko jarraitzen ditugu trikiti kontuak sarean, eta ezagunen elkarrizketak eta ikusten ditugunean segituan saritzen gara.

Nori zuzendutako saioa izango da?

A. M. Mundu guztiari. Trikiti zaleentzako saioa izan beharko lukeela dirudi, baina, trikiti zale ez direnak ere gonbidatuko nituzke. Musika zaleak, esaterako, baina, ez soilik musika zaleak, baita kulturazaleak ere.

Zer botatzen duzue faltan trikiti munduan?

A. M. Agian gurea bezalako ekimenak eskualde mailako komunikabideetan soilik sortzen dira, eta ondorioz, zabal-kundea mugatuagoa da. Trikitixa Elkartea ari da horretan ahaleginetan. Baina, hori bai, *Hauspo Artean* bezalako proiektuak eskualde desberdinetan egitea beharrezkoa da.



Arrozez betetako tomateak

Errezeta garbiak eta errazak ekarri ditut txoko honetara, guztiok egiteko modukoak. Azokatik bueltatxo bat egingo dugu, zer dagoen ikusi, erosi eta horrekin prestatuko dugu errezeta. Bertako produktuak erabiliz eta garaian garaikoak.

Ia bukatzeaz daude kasu honetan, baina tomatea ekarri nahi izan dut lehen errezeta honetara, nire gustukoenetako bat delako. Aurten kosta zaio hastea baina irailean puri-purian izan da. Gehienetan entsaladan edo tomate saltsa egiteko erabiltzen dugu edo salmorejo baterako, baina gaurkoan errezeta bereziago bat ekarri dut baina errez-errez da egiteko.

Ohikotik urrundu eta arrozez betetako tomateak prestatuko ditugu. Pixka bat handiak aukeratuko ditugu tomateak arrozez bete ahal izateko.

Tomate bakoitzari goiko zatia kenduko diogu, eta baita barruko haragia eta hazitxoak ere. Barruko guztia gorde egingo dugu, dena aprobetxatuko dugu eta. Labana batekin, eta koilara batekin lagunduz, erraz garbitu edo hustuko dugu tomateak.

Kazuelatxo bat hartuko dugu eta bertan oliba olio jarriko dugu. Tipulina xehe-xehe eginda gehituko diogu, eta baita piper berdea ere. Tomateari kendu diogun barruko haragi guzti hori ere botako diogu, eta baita azafrai pixka bat ere. Azafraia arrozari kolore eta zapore pixka bat emateko erabiliko dugu. Su epelean erregosiko dugu guztia.

Arroza gehituko diogu. Arroz ezberdinak erabili ditzakegu. Arroz zuria, bonba itxurakoa da normalean etxe gehienetan erabiltzen dena, eta bakoitzak bere denbora du baina 20 bat minututan egosten da. Arroz luzea, basmatia,... Nik normalean integrala erabiltzen dut, eta integralarekin egin nahi iza-



AINTZANE ARTOLA

nez gero komeni da aparte egostea. Nik presioko eltzean egiten dut 40 bat minutu behar dituelako eta gero zartaginera gehituko dugu arroza barazkiekin nahasteko.

Puntu berezi bat nahiko bagenu, arroz basatia dugu edo beltza ere izango genuke.

Arrozari oilasko bularkia edo hegaleztea esaterako, gehitu ahal dizkiogu, bakoitzaren gustuen arabera da, eta horrela gure arroza beteagoa eta zaporetsuagoa izango litzateke.

Labea 170 gradutan berotzen jarriko dugu, eta tomateak arrozarekin beteko ditugu. Labean sartu aurretik, Idiazabal gazta xehatuko dugu, eta tomateari botako diogu.

Labean, 5-10 minutu sartuko ditugu gehienez jota. Tomatea berotu, eta gazta birrintzeko.

Platerean letxuga hostoak julianan moztuta jarriko ditugu eta gainean tomateak jarriko dugu. Gatz puntu bat botako genioke eta jateko prest dago.

OSAGAIAK

- Lau tomate, pixka bat handiak.
- 100 gramo arroz
- Tipulin erdi bat
- Piper berde bat
- Baratzuri bat
- Azafraia
- Idiazabal gazta
- Oliba olio
- Gatz
- Letxuga orri batzuk



AINTZANE ARTOLA
SUKALDARIA

Agenda

OSTIRALA URRIAK 12

ANOETA

ANTZERKIA

22:30. Mirari Martiarena eta Idoia Torregararen eskutik *Bakean dagoenari bakean utzi*kuskizuna, Zimiterioan.

IKAZTEGIETA

PILARIKA EGUNA

12:00–14:00 eta 17:00–19:00. Pilarika eguna izanik, Zubiaurre tabernan trikitilariak jarriko dute festa giroa.

OREXA

MUSIKA

22:30. Orexako Ostatuko Ostiral kulturalen barruan kontzertua eskainiko du D'Capricho Kubako bikoteak.

Ondoren. Txoko DJa ariko da.

TOLOSA

BERAZUBIKO FESTAK

09:00. Korpus Kristi elizan auzoko hildakoak oroitzeko meza.

11:00. Buruhandiak auzoko kaleetan.

12:00. Gizonezkoen Toka.

14:30. Herri bazkaria (norberak eramana).

16:45. Entzierro txikia paper eskolatik zezen plazaraino.



17:00. Zezen plazan haurrentzako zezentxoak eta poney-ak.

19:00. Patata tortilla lehiaketa Tolosa C.F.-ko plazan.

19:00. Pintxo potea patata tortillarekin.

21:30. Herri Afaria (norberak ekarria).

23:30. Karaokea.

LA JARA ELKARTEKO XXV. KULTURASTEIA

10:30. Extremadurako plateren lehiaketa: patata tortilla, gazpatxoa eta mamia.

13:00. Plateren aurkezpena eta epaimahaiaren dastaketa eta balorazioa.

16:00. Karta lehiaketa: musa, tute, txintxon eta kuatrola.

LARUNBATA URRIAK 13

AMASA-VILLABONA

BEERTOKIFEST

17:30. Hiru talde izango dira arratsaldean eta beste hiru gauean, Berdura plazan. Tartean, Beertokikoek musika jarriko dute. Jaialdi guztian zehar garagardo artisaua, pintxoak eta errazioak eskainiko dira. Sarrera doan. Tartean Olaia Toral abeslari billabonatarra, euskal kantu zein munduko beste hainbat abeslari klasikoek bertsio akustikoak jotzen ariko da. Gainera, Boogie Van, Hyedra, Urgatz eta Managaitz. Azkenik, Berlindik datorren Schwach taldeaz gozatu ahal izango da.

ANOETA

MUSIKA

19:00. Zzio talderaren kontzertua izango da, plazan.

TOLOSA

BERAZUBIKO JAIK

10:30. Xake txapelketa.

12:00. Edurne Tranco MasterChef-eko finalistaren gidaritzapean haurrentzako sukaldaritza tailerra.

14:30. Sukaldaritza tailerreko parte hartzaileentzako bazkaria (tailerrean prestatutakoa bazkalduko dute).

R.P.S. 17/5/15 I.L.G.

Konsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia
Eibar • Errenteria • Irun • Lasarte-Oria • Ordizia

2 mó graduatu
erreflexuen aurkako lenteekin

99€

www.multioplicasgipuzkoa.com



Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira

San Frantzisko, 23 • Tel.: 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

Agenda

16:00. Mozorro lehiaketa.

16:30. Mozorroekin photocall-a.

16:30. Umeentzako jolasak.

17:30. Txokolate jatea.

19:30. Oasis Musikal Show orkestaren lehenengo saioa.

20:45. Danborradako afaria.

22:15. Danborrada auzoko kaleetan.

23:45. Su artifizialak Berazubiko zubitik.

00:00. Oasis Musikal Show Orkesta.

LA JARA ELKARTEKO

XXV. KULTURASTEIA

12:00. Hamaiketakoa Jara elkartean eta ondoren Larramendi auzoan.

14:30. XXV. urteurrena ospatzeko bazkaria.

Ondoren. Postrea, Dja eta edaria doan.

ZIZURKIL

ONDAREAREN EUROPAKO

JARDUNALDIAK

18:30. Plazida Otaño oroitz. Emakumeen isilpeko emaria ikuskizuna. Herritar batek, Plazida Otaño, eta herriko ondare den

Gorritiren Baserriko Argia eskulturak (emakume baserriarren omenez egindako eskulturak) topo egingo dute herriko plazan, emakumeen isilpeko emaria gogora ekartzeko asmoz. Haatik dantza konpainiaren *Lau* emekoreografia, Plazida Otañoren bertso antzeztuak eta emanaldia borobilduko dituzten bertso musikatuak izango dira, Pedro Mari Otaño plazan.

IGANDEA **URRIAK 14**

ANOETA

XI. EUSKAL JAIA

09:30. Herriko txistularien kalejira.

10:00–14:00. Baserriar eta artisauen azoka.

12:00. Ekitaldi antzeztua: Anoetako historia.

Jarraian. Ardo dastaketa.

14:00. Herri bazkaria.

18:00. Hitz neurtuan jolas bertso-saioa: Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Iker Zubeldia eta Anjel Mari Peñagarikano.

Ondoren. Kupela eta Anoetako talogileak.

JANTOLOSALDEA

12:30. Jan Tolosaldea egitasmoaren aurkezpena izango da, plazan.

TOLOSA

BERAZUBIKO JAIK

09:00. Tolosako Txistulariekin diana auzoko kaleetan zehar.

11:00. Europako Txapela jaurtiketa.

12:30. Emakumezkoen toka.

14:30. Paella erraldoia.

17:30. Chuchin Ibañez.

19:30. Areto dantzak Ritmo de Luna taldearekin.

21:00. Txistorra jatea.

22:00. Arrotolaren erretzea.

LA JARA ELKARTEKO

XXV. KULTURASTEIA

11:30. Karta lehiaketa finalaren ospakizuna.



Muturreko bidaia bat gogora ekarriz

Groenlandia 88 espedizioa Tolosaldeko bost lagunek osatu zuten duela hogeita hamar urte; bi eguneko jardunaldiak antolatu ditu Antxon Bandres Bidaia-ri Txokoak, urriaren 15 eta 16rako

Mikel Iraola

30 urte dira Tolosaldeko bost lagunek osatutako Groenlandia 88 espedizioak munduko irla handiena ekialdetik mendebaldera gurutzatu zuenetik. Bidaia hori aitzakiatzat harturik, bi eguneko jardunaldiak antolatu ditu Antxon Bandres Bidaia-ri Txokoak, urriaren 15 eta 16rako.

13.30. Sari banaketa.

14.30. Amaiera.

SAN ESTEBAN AUZOKO XXXI. KULTUR ASTEA

09.30. Mendi Ibilaldia antolatu du Ttonttor San Esteban Auzokide Elkarteak, auzoko XXXI. Kultur Astearen barruan.

ZIZURKIL

XX. AZOKA BEREZIA

10.30-14.30 eta 16.30-19.00. Baserriko produktuak eta artisauak.

Autobusa doan Bulandegi Bideko errotondan edo Zubiaurretetik Zizurkil Goiko Plazara egun guztian zehar. Ordutegia: 10.15-15.00 eta 16.30-20.30.

10.30. Azokaren irekiera.

11.30. Haurrentzat liho eta buztin tailerrak eta txikiarentzat puzgarriak.

14.30. Bazkari herrikoia Zimiterioan.

16.30. Haurrentzako tailerrak, poney-ak azokan zehar eta puzgarriak.

18.30. Gipuzkoako Harri Handien Txapelketa.

100 urte lehenago Nansen esploratzaile norvegiarrak egindako bidea jarraitu zuten Dina Bilbao, Josu Iztueta, Nekane Urkia, Angel Ortiz eta Txiki Plazasek, eskiekin, 1988. urtean. 34 eguneko bidaia zirrargarria egin zuten Groenlandian zehar, eze-rezaren erdian, guztiz isolatuta, eta egoera guztiz muturrekoan.

Garaiko esperientziak egunkari eta aldizkarietan bildu zituzten. Honela kontatu zuen, urte batzuk beranduago, Ander Izagirre kazetari donostiarrak, *Groenlandia cruje* liburuan: «600 kilometroko bidea egin zuten, izotz gainean. Ekaitzak, haizeak eta zero azpitik 36 graduko tenperatura jasan behar izan zituzten. Maparik, GPSrik, irratrik edo telefonorik gabe. Kilometro-kontagailu bat itsatsia zuen bizikletako gupil batekin (egunean egindako distantzia neurtzeko) eta sestante (eguzkiaren eta zeruertzaren arteko angelua neurtzeko gailua) batekin soilik. Esfortzu fisikoa ikaragarria izan zen, baina erabateko isolamendu beldurgarriaren parekorik ez: helmugara iritsi izan ez balira, inork ez luke jakingo non ote ziren eta eurei ere ezinezkoa izango zitzaizen mezuren bat

ASTELEHENA URRIAK 15

TOLOSA

ODOLEMATEA

18:00-20:30. Hileroako odol-ateratzea izango da, kultur etxeko Topagunea gelan (1.solairuan).

MUSIKA

20:00. Golden Oriole & Gaute Granli Norvegiako taldeak kontzertua eskainiko du, Bonberenean. Sarrera: 8 euro.

MUSIKA

20:30. Mayerling, zuzeneko ballet proiektzioa Royal Opera House-etik.

MAHAIINGURUA

20:00. *Groenlandia; inuiten lurraldea*, jardunaldiak. Mahai-ingurua: Groenlandia 88 espedizioako kideek euren esperientzia kontatuko dute eta irudiak erakutsiko dituzte, kultur etxean.

bidaltzea. Horrela pasa zituzten 34 egun, mundutik at».

Groenlandiaz gehiago jakiteko aukera, Tolosan

Espedizio haren 30. urteurrena aitzakiatzat hartuta, Groenlandiaz eta bertan bizi diren Inuiten egoeraz mintzatzeko bi eguneko jardunaldiak antolatu ditu, datorren asterako, Antxon Bandres Bidaiariaren Txokoak, Zumardia eta Alpino Uzturre elkartearen eta Tolosako Udalaren laguntzarekin.

Datorren astelehenean, urriaren 15ean, Groenlandia 88 espedizioako kideek bidaia hura gogora ekarriko dute, han ateratako irudiak eta materiala erakutsiz.

Hurrengo egunean, berriz, Francesc Bailón antropologoak, Inuiten bizimoduaren inguruko hitzaldia eskainiko du, *Viaje a la tierra de los Inuits* izenburupean. Bere bizipenetan eta ikerketetan oinarrituz, etnia honen errealitatea azaleratuko du.

56.000 biztanleko herrialdea da Groenlandia, eta horien %87a inuit jatorrikoa da. Ehiza, arrantza, berotze globala edo kutsaduraren inguruko kezak bizi dituzte eta, besteak beste, gai horien inguruan ariko da Bailón.

ZINEMA

EL MEJOR VERANO DE MI VIDA

Larunbata (19:30 eta 22:00).

Igandea (19:30).

Astelehena (21:00).

Ikuslearen eguna.

Gurea, Amasa-Villabona.



HOTEL TRANSYLVANIA 3

Haur zinema.

Larunbata (17:00).

Igandea (17:00).

Gurea, Amasa-Villabona.




CHRISTOPHER ROBIN

Haur zinema.

Ostirala (17:00).

Igandea (17:00).

Leidor, Tolosa.



OREINA

Ostirala (19:30).

Jatorrizko bertsioan, gaztelarazko azpidatziekin.

Igandea (22:00).

Asteartea (20:30).

Ikuslearen eguna.

Leidor, Tolosa.



ELESCANDALO DE TED KENNEDY

Larunbata (19:30 eta 22:30).

Igandea (19:30).

Leidor, Tolosa.



'ATARIA'-k bost urte



UNAI MENDIZABAL 'MENDI'

*Kolaboratzaile ugari
eta hainbat kazetari
herri eta gertakari
guztiei adi-adi.
Nortasun hitzez guztiontzako
zabalik dagoen kabi
unibertso bat oso-osorik
kabitzeko bezain handi.
Bost urte bete dituzun hontan
segi zure bideari
eskerrik asko ta zorionak
guztion ATARIARI!*



Doinua

Baneza eta banitu

Begiradak

Begiratzuz soilik gauza asko behatu daitezke. Begiek egin ditzakete ikusgarri edo ikusezin milaka gauza, objektu edota pertsona. Behatuz auzian jartzen ditugu ondokoan jarrera, jokabide eta izaerak, modu batera edo bestera beraz, begiak gure aurreiritzien isla bilakatzen dira.

Donostiako autobus geltokian begiradak proiektuaren inguruan egindako lanketaz gozatzeko aukera izan dut duela gutxi. Bertan pertsona desberdinen aurpegi eta begiradak aztertu daitezke, bai eta Antonio Machadoren honako aipua: Begiak ez dira begiak zuk ikusten dituzulako, begiak dira ikusten zaituztelako. Begiekin beraz, ondokoan nahi, desira eta beldurak antzeman ditzakegu.

Kaletik goazenean, askotan oinez-

ko scanner-ak bilakatzen gara, guretzat normaltzat ez dena goitik behera fotokopiatuz. Begiradaren erdigunean kokatzen ditugun pertsonen egotea tokatu zait eta behin eta berriz

errepikatu didatena izan da, gehien sufrizten duten unea gutxiesten ditzuten begiekin topatzen direnengan izaten dela.

Zenbait begiradekin nire aurreiritziak indartzen ditudala konturatu naiz, nahiz eta aurreiritzien desoreka pasata nuela uste izan. Begiekin

ikusten ez duguna, ez da existitzen eta horregatik ez dugu kontuan hartzen, ondokoak aberastasun iturri izan daitezkeela alderatuz. Pertsona askorekin izaten dudana miopia jarre-
rak elkarbizitzarako urratsak ematea galarazten dit inolako zalantzarik gabe.



IÑIGO IRURZUN
IRAKASLEA

**Pertsona askorekin
izaten dudana
miopia jarre-
rak elkarbizitzarako
urratsak ematea
galarazten dit inolako
zalantzarik gabe**

SONETOA KARLOS LINAZASORO



Urrutiko intxaurrak

*Gure amonak zioen: «Urrutiko
intxaurrak hamalau. Bertaratu eta
lau!» Amonak arrazoi osoa edukiko
ote, ala okerra zen haren kasketa?*

*Bertaratu naiz mantsoki urrutira,
etorri naiz urrutitik bertara,
eta oro zen kolore eta distira,
den-dena elur urdina mara-mara.*

*Zenbatsu kontatu ditut orduan?
Han hamalau eta hemen, berriz, hiru-lau?
Hemen batekoz beste eta han erbeste?*

*Arrazoi gure amonak munduan?
Ezin esan sardiña edo bakalau!
Ergelik ba ote lurrean ni beste?*

29

Ordua eta argia

Uda bukatu da, errutina berreskuraturik daukagun honetan neguko ohiturak gerturatzen zaizkigu. Freskatzzen hasi du, goizak hotzak izaten hasi dira eta denetarikoa txamarra, bufanda, jertse eta antzekoak armairutik ateratzeko deia jasotzen hasi gara.

Baina arropa eta beroiak alde batera utziz, badirudi neguaren ezaugarri latzenetarikoa argia gutxitzen dela da, ordu bat aldatzeak ekartzen di-tuen buruhauste eta arazoak.

«Arratsaldeko seietan gaua izango da, ze tristura, argi gutxiago dago, eguna motxagoa da...».

Ordu aldaketaren arrazoia askotan

azaldu diguten arren, energia aurrezteko dela esaten digute, badirudi aurtentzen azkenengo ordu aldaketa egingo dela. Energia aurrezteari utziko al diogu hurrengo urtetik aurrera? Egu-

na motxagoa izango den azken urtearen aurrean al gaude? Egunak di-tuen argi orduak berdinak izango dira, ez?

Orain 44 urte inposatu zen aldaketa honen bukaeraren aurrean gaude, asmakizun honen aurrean. Hurrengo urtetik aurrera, uda eta neguaren arteko dife-

rentzia ez da hain nabarmena izango, baina neguak negua izaten jarraituko du eta uda, orain arte bezain argitsua izango da. Edo hori espero dugu behintzat.



**NATALAIA
GARMENDIA**
MUSIKARIA

**Eguna motxagoa
izango den azken
urtearen aurrean
al gaude?**

EGURALDIA



OSTIRALA

Giro eguzkitsua bueltan berriz ere. Egun guztian hego-haizeak joko du, bizi xamar eta horrekin tenperaturak ostegunean galdutakoa berreskuratu-ko du, eguneko erdiko orduetan 23-25º harrapatuz. Zeruari dagokionez

aitzakiarik ez. Egun osoan zehar goi-hodei batzuk ikusiko ditugu, zeruari kolore zurixka emanez, inolako ondoriorik gabe. Beraz, eguzkia jaun eta jabe.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Giro eguzkitsua eta beroa, baina az-

ken azken orduetan aldaketak iritsiko dira. Egun osoan zehar hego-haizeak zakar joko du. Horrekin eta erdi-mailako geruzetan egongo den aire epelarekin, lurrazalean tenperatura altua izango da: 26-27º. Zeruari dagokionez, egun osoan zehar goi-hodei asko ikusiko dugu, baina eguzkiari trabarik egin gabe. Arratsalde erditik aurrera hodei trinkoagoak sartuko dira mendebaldetik, gauerako zerua estali eta azken ordurako lehen zaparradak.

IGANDEA

Eguraldi benetan ezatsegina. Fronte hotz sendo batek egunaren lehen partean euri zaparradak sarri utziko ditu; mardulak. Lehen orduetan ekaitz kutsukoak izan daitezkeenik baztertu gabe. Arratsaldean, frontea pasatzen hasten denean, eguraldiak azkar batean eta nabarmen hobera egingo du, ilunbararrerako erabat atertuz eta os-tartetxoren bat edo beste irekiz. Tenperatura 16-17º. Egunean zehar erdi-mailako geruzetako aire hotzagoaren eta ipar-mendebaldeko haizearen eraginez, hozteko joera 10 graduren bueltan geratuz.

OSTIRALA
12



IGANDEA
14



LARUNBATA
13



ASTELEHENA
15



ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20

Tolosa

IRAGARKI
LABURRAK

LAN ESKAINTZA

Kabina estetikoa. Tlrekita dagoen ile-apaindegi batean kabina estetiko bat eskaintzen da. Norbaitek interesa badauka deitu: 638445642 telefono zenbakira.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK

URRIAK 12, OSTIRALA
TOLOSA

Egunekoa. Bronte, C.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

URRIAK 13, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

URRIAK 14, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Etxebeste, J.M.
Gernikako Arbolararen lorategiak, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.

URRIAK 15, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa. Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA
IRRATIA

OSTIRALA

10:00. Asteko onena. Asteak emandakoaren bilduma.

LARUNBATA

11:00. Trikiti musika.
12:00. Hauspo artean. Trikiti saioa Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin.
14:00. (H)ari naizela. Imanol Artola *felix*-ek gidatutako bertso saioa.

IGANDEA

10:00. Asteko onena. Asteak emandakoaren bilduma.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza.
Iker Ibarluzearekin eguraldiaren iragarpena, asteburuko erreposoa, agenda, Iñaki Zubeldia *kale kantoitik*, Idoia Apaolaza psikopedagogoa eta bidaiariaren tarteak.
16:00. Zebrabidea.
11:00. Hamaiketakoa.
Villabona - Aiztondo eta Anoetaldeko berriak, Jon Mirandaren eskutik.
18:00. Goizeko saioen onena.
20:00. Hauspo artean. Trikiti saioa Ander Malbadi eta Eneritz Aulestiarekin.

107.6 fm

www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
16:30. 1,2,3 Hemen da Miru.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
22:00. Herri Kirolak Zarautz.
22:30. Sexkulari.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

Gure begiz ikusteko



www.hamaika.eus



Plaza Etxeberri

J A T E T X E A

Pedro Mari Otaño Plaza

943 69 19 36

Zizurkil

Datorren asteburuan... aitzakirik ez daukazu

ostirala,
urriak



jai eguna
eguneko menua
25 €

larunbata,
urriak



eguneko
menua
20 €

igandea,
urriak



Azoka Berezia
eguneko menua
25 €

etor zaitetz Zizurkilera!

gorde zure mahaia

943 69 19 36

ZATOK GURE ETXERA!!!



KATILUA _____

BOLIGRAFOA + KOADERNOA _____

BOLIGRAFOA + KOADERNOA + KATILUA _____

8 EURO

4 EURO

10 EURO

ATARIKIDEAK

10 EURO

6 EURO

14 EURO

BESTIAK